

PROWEIN DÜSSELDORF 2026

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2026ko martxoak 15-17
- **Tokia:** Düsseldorf-eko azoka esparrua, Alemania
- **Maiztasuna:** urtero
- **Sektorea:** Mahastizaintza eta Ardogintza industriako profesionalak
- **Izena emateko epea:** 2025eko uztailaren 14
- **Azokaren webgunea:** www.prowein.com

Informazio gehiago:

María Fernández de Romarategui
945 14 18 00

internacional@camaradealava.com

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **PROWEIN 2026** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZIren bitartez. Azoka, Düsseldorf-en (Alemania) ospatuko da 2026ko martxoaren 15etik 17ra.

AZOKAREN IZAERA

2024an, Alemania munduko ardoak inportatzen dituen bigarren herrialdea izan zen bolumenari dagokionez, Estatu Batuen atzetik, eta hirugarrena balioari dagokionez, Estatu Batuen eta Erresuma Batuen atzetik. Hiru herrialde hornitzaile nagusiek (Italia, Frantzia eta Espainia) merkatu-kuotaren % 83 baino gehiago banatzen dute inportazioen balioari dagokionez: Italia (% 39,5), Frantzia (% 27,9) eta Espainia (% 15,7).

Alemania izan zen 2024an Espainiako ardoen esportazioen helburu nagusia balioan (376,7 milioi euro). Bolumenari dagokionez, 2024an 4,26 milioi euro esportatu ziren, orduko 88,22 euroko batez besteko balioarekin.

Euskadiren kasuan, Alemania laugarren postuan dago esportazioen bolumenaren arabera hirugarren balioan, 28.482 hektolitroko bolumenarekin eta hektolitroko batez besteko prezioa 567 €-koa da. Beraz, 2024an ikusitako joerek adierazten dute Alemania ardoen merkatu nagusia dela oraindik ere.

Azoka hau Europako garrantzitsuena eta esanguratsuena da, eta erakusketarien artean munduko ardoen eta beste edari alkoholodun batzuen ekoizle nagusiak daude.

Azoka publiko profesionalarentzat bakarrik da, eta bertaratzen diren bisitariak adituak dira banaketa-kanalen erosleak (handizkariak, hotel-industria, catering-a, txikizkako espezializatua, inportatzaileak, banaketa-kate handiak, etab.)

AZOKAREN IZAERA

PROWEIN AZOKAREN DATUAK

Erakusketa
eremua:

68.000 m²

2025ean
ordezkatutako
herrialdeak:

135

Erakusleak
2025ean:

4.700
enpresa

Bisitariak
2025ean:

42.000

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDa

Eusko Jaurlaritzak gune bat izango du **PROWEIN 2026** azokan, ardoa eta sagardoa ekoizten duten eta parte hartu nahi duten enpresentzat. **Euskadi Basque Country** standa **HALL 11n** egongo da.

Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du, baldin eta parte hartzen duten enpresen gutxieneko kopurua badago.

Euskadiren ordezkaritzak gehienez ere enpresentzako gaitasuna izango du. Interesa duten enpresa guztientzat lekurik ez badago, **hautaketa inskripzio-hurrenkeraren arabera** egingo da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza Euskadin duten eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Elikagaien Industrien **Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu PROWEIN 2026 azokan.

Behin enpresa erakusleak baieztatzen duenean azokara joango dela, izen emate fitxa eta ordainketaren ziurtagiria bidaliz, ordaindutako kopuru hori ez da itzuliko azoka egiten bada eta Eusko Jaurlaritzak bertan parte hartuko duela baieztatzen bada. Azoka ez bada egiten, berriz, HAZIk dagokion zenbatekoa itzuliko du.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkari bat **bertaratzeko konpromisoa** hartuko du eta dagokion kuota ordainduko du.
- Enpresak **nahitaez agertu behar dira muntatze-egunean**, salgaiak jasotzen dituzten orduan, bai eta beren standak apaintzen amaitzeko ere, lehiaketa inauguratu baino behar beste lehenago.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta ordutegi osoan. Standean egon ezean, enpresak bere gain hartuko du azokaren antolakuntzak ezar dezakeen zeinahi zigor, eta hurrengo ekitaldietan Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzeko ondorioak ekar ditzake.
- **Azoka amaitzean, enpresak egoki jaso** beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu.

AZOKAN ZE HAR

- Produktuek **Euskal Autonomia Erkidegoan egindakoak** izan behar dute soil-soilik.

AZOKAREN ONDOREN

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskatzen zaienean entregatu.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko bi aukera eskaintzen ditu:

- Stand INDIBIDUALA eredua
- Stand PARTEKATUA eredua



PARTE HARTZEKO KOSTUA

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresen parte-hartzea sustatzen du bere ekintzetan.

Sektorearen ezaugarri bereziak direla eta, enpresa parte-hartzaile guztiak mota bakar batean sartzen dira (1. mota).

Partaidetza-kuota ordainketa bakarrean ordainduko da.
Faktura HAZIk jaulki eta bidaliko du:

- Zenbatekoaren % 100 + % 21eko BEZa, inskripzioa egiten den unean
- Kuota ordaintzea ezinbestekoa da parte-hartzea baieztatzeko

OHARRA

1. Stand bikoitza esleitzeko, parte hartzen duten enpresen guztizko kopurua eta erabilgarri dagoen espazioa hartuko dira kontuan.
2. Standaren neurri zehatzak aurrerago zehaztuko dira, parte hartzen duten enpresen azken kopurua jakin ondoren.

- **Stand indibiduala:**
 $3.000 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 3.630 \text{ €}$
- **Stand partekatua:**
 $1.500 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 1.815 \text{ €}$

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2025eko UZTAILAren 14

Plaza kopurua mugatua da. Gogoratu dokumentazio guztia mromarategui@camaradealava.com helbidera bidaltzen duenean baino ez da ulertuko enpresa inskribatuta dagoela.

Eusko Jaurlaritzarekin PROWEIN 2026an izena emateko, enpresak honako dokumentu hauek bete beharko ditu:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira zokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionalerako.

[IZENA EMATEAK](#)

KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako **ES49 3035-0179-61-1791069900** HAZI Fundazioaren izenean.

Laboral Kutxako BIC : CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + PROWEIN 2026"

Zenbatekoaren % 100 + BEZaren % 21 izena emateko unean ordainduko da.

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

ZINPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Enpresa bakoitzak lehengaiaren jatorriari buruzko [Zinpeko Adierazpena](#) aurkeztu beharko du inskripzioa formalizatzean, sinatuta eta zigilatuta. Enpresa-tipologia justifikatzeko, eta horrek kuotaren zenbatekoa zehaztuko du.

Produktuak jatorri-deitura, AGB edo kalitate-marka ziurtatu ofizial batean erregistratuta dituzten enpresek ez dute adierazpen horren taula bete beharrik izango.

ZURE ENPRESAK ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK EGUNEAN DITUELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK

JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie [Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari](#) atxikita dauden enpresei.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartuko:

- Enpresak baja ematen badio, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.
- Enpresak ezin badu parte hartu Eusko Jaurlaritzaren standean lekurik ez dagoelako, ordaindutako zenbatekoa itzuliko zaio.
- Eusko Jaurlaritzak parte-hartzaileen ezinbesteko edo intsuzientziako arrazoiengatik ekitaldian parte hartzeari uzten badio, enpresek inskripzio-kuota itzultzeko eskubidea izango dute.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

1 Espazioaren kontratazioa

Sustapen-espazioa izanez parte hartuko da. Espazio horrek stand indibidual eta bikoitz pertsonalizatuak izango ditu enpresa erakusketari bakoitzarentzat.

2 Stand-aren dekorazioa

Standean egongo diren oinarritzko dekorazioa eta altzariak berdinak izango dira Euskadiko erakustokiko erakusle guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

- **Stand INDIBIDUALA:** 1 mahai eta aulkiak, erakusmahaia, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegi komunitarioa.
- **Stand BIKOITZA:** 2 mahai eta aulkiak, 2 erakusmahai, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegi komunitarioa.

OHARRA: arraskak ez dira sartzen stand indibidualetan, gunek komun batean jarriko dira.

Oinarritzko altzarien, elementu elektrikoaren edo standetako behar elektrikoaren edozein aldaketa, horiek handitzea edo aldatzea badakar, zuzenean kontratatuko du erakusketari-kide bakoitzak, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsia izango du.

3 Standa mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-, elektrizitate eta ur-zerbitzuez, besteak beste, bai eta, oro har, standaren mantentze egokiaz ere. Hala ere, enpresa bakoitza izango da bere standaren garbitasun-baldintza egokietan izatearen erantzulea.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

4 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren taldeko bidalketa antolatuko du garraiolariak adierazitako puntu komun batetik standera bertara entregatu arte.

Merkantzia bidaltzearen kostua garraiolariak fakturatuko du eta enpresa erakusketariak ordaindu beharko du osorik. Dagokion garaian, enpresa garraiolari adjudikaziodunaren datuak helaraziko dira. Eusko Jaurlaritza ez da taldeko bidalketatik kanpo bidalitako merkantzien harreraren eta segurtasunaren arduradun izango.

Enpresek bertan egon beharko dute merkantzia hartzeko garaian, adieraziko zaien orduan, eta bertan egon beharko dute, halaber, standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi aurretik, nahikoa aurrerapenarekin. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera joaten ez diren enpresei zehapena jarri ahal izango zaie.

5 Kopa eta listu ontzien zerbitzua

Eusko Jaurlaritzak kopen, garbiketaren eta listu-ontzien kontratazioa koordinatuko du. Zerbitzu hori %100 finantzatuko da kopen eta listu-ontzien lehenengo erretilurako.

Enpresa erakusketariak elementu gehiago kontratatu nahi baditu, eskaria zuzenean kudeatu beharko du zerbitzuaren hornitzailearekin, aldez aurretik antolakuntzari horren berri eman ondoren, azokan eskariaren harrera koordinatu ahal izateko.

6 Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokan parte hartuko duten enpresa erakusketari guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen. Katalogo horretan agertzen dira erregistratuta ekitaldiaren erakusketari guztiak (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).